

Googleren aurka salaketa jarri du Frantziako argitaletxe nagusiak

Liburuak digitalizatzen ari dela eta, egile eskubideak zangopilatzea leporatzen dio La Martiniererek

Nora Arbelbide. Baiona.

Google AEBetako Interneteko bilatzailea Europako argitaletxe handien funtsa digitalizatzen hasia dela eta, La Martiniere Frantziako editore taldeak, besteak beste Seuil argitaletxea kontrolatzen duenak, haren aurka salaketa jarri zuen atzo goizean Parisko auzitegian. Faltsutzea eta jabetza intelektualaren eskubideak zangopilatzea leporatzen dio editoreak bilatzaileari. Horrekin taldeak, Seuil argitaletxearen interesak babesteaz gain, Suitzako Delachaux, Niestle eta AEBetako Abramsen interesak ere nahi ditu babestu.

ASPALDIKO POLEMIKA. Googlek daukan liburutegi birtual baten osatzeko proiektuak hasieratik polemika sortu du Frantzian. Laurehun argitaletxe baino gehiago biltzen dituen edizioaren sindikatuak joan den urtarrilean jadanik abisatua zuen Google auzitegira bidaltzekotan zegoela, oharturik egile eskubiderik ordaindu gabe Frantzian argitaratutako liburuak sartzen hasia zela talde amerikarra.

Alabaina, Googlek liburuei zuzendua duen zerbitzuak funtzionatzen du jada: books.google izenpean aurki daiteke. Horri esker atzematen ahal diren idatzi frantses berrienak 70eko hamarkada hasierakoak dira. Eta horien arteko gutxi dira egile eskubideak ordaindu beharrik gabe eskura daitezkeenak. Azala eta zenbait lerro baizik ez dira digitalizatuak, baina hori bera ere, sindikatuko zuzendari Serge Eyrollesentzat, faltsutzea da. Googlek erran zuen egileen eskubideak errespetatuko zituela. Eta ez du bere hitza bete. Zenbait esaldi berrargitaratzen ahal dira dohainik, baina frantses legeak ez du baimentzen orrialde osoak egitea, segurtatu zion zuzendariak joan den urtarrilean AP agentziari. Akordiorik ez bada horretarako lortzen hasteko. Eta preseski, Googlek ez du bide horretan urratsik egin, editoreek diotenez. Batzuk negoziatzen ari zirela jakin ahal izan da, aldiz. La Martiniere da salaketa pausatu duen bakarra, mementoko. Frantziako autoreen kolektibo batek Google Printen aurka auzitegiko bidea hartua du jada 2005eko irailean.

Googlek, bestalde, nazioarteko legea errespetatzen duela berretsi du. AEBetako liburuak digitalizatzeko eskubidea dauka, iduriz, eta, beraz, bertan aurkitzen diren Frantziakoak ere bai, bere ustez. Bestalde, editoreen esku dela zein liburu ezin den digitalizatu jakinaraztea gaineratu du bilatzaileak. Haiei dagokiela beren ezadostasuna jakinaraztea. Editore frantsesek argumentu hori ez dute onartzen.

Arazoa ideologikoa ere bada. Izan ere, Europako liburutegi digitalaren proiektua gauzatzeko eskatzen ari diren gero eta boz gehiago entzun daitezke. Horren xedeetako bat, Googlen egin desafioa dela eta, Amerikarren parean Europa azkartzea litzateke, sindikatuko zuzendariaren hitzetan. Proiektua aztertzen ari dira oraino Europan. Urratsak eginak badira ere adostasun batera heltzeko, oraino ez da ezer eginga praktikoki.